

2006KO MAIATZAREN 8KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko maiatzaren zortzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Amagoia Naldaiz Mingo eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratu deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko martxoaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA; 10-12 H.A, ABANTZEAREN ONARPENNA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita, 10-12 Hirigintz Areari -Iturgaitzaga gunea- dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualaren Abantzea dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Aldaketa puntual honen helburuak ondorengo hauek dira:

Trafikoko bidegurutzea ifarralderago eramatea, bidegurutze hau ari gareneko egoitza gunea berri honen erdialdetik ertz batera eramanez. Aldi berean honekin egoitza gunea eta aldamenear dagoen Ibabe industri poligonoa hobeto bereizita geratzea lortuko da.

2004ko azaroaren 17ko Alkatetzaren Ebazpen bidez Aldaketa Puntual honen lanak jendaurreko erakustaldian jartzea erabaki zen.

Dokumentua jendaurrean erakusten dela iragarritz iragarkiak 2004ko azaroaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2004ko azaroaren 24ko Berria eta Deia egunkarietan argitaratu dira.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian 10 iradokizun aurkeztu dira eta iradokizun hauen aurrean, aldaketa puntual hau erredaktatu duen talde teknikoak honako txosten hau egin du:

1 zbk.duna.- LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGINO And.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2004/4848).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileak adierazten du, bere egunean Hiribarren kaleko 16 zbk.an kokatutako eraikinak iparraldera erantsitako eraikina zuela, bere aurrean espaloia eraikitzeko eraitsi zena, eta honekin eraikinak okupatutako azalera 2 area eta 34 zentiareako zela eskrituren arabera. Ondorioz, egunen baten 16 zbk.an eraikinen bat eraikiko balitz, aipatutakoaren pareko azalera izatea proposatzen da.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako iradokizuna guneko antolaketa xehakatuaren atalean sartzen da, Aldaketak garatzen ez duen alderdia, ez bait da bere helburua, eta gainera, proposatutako antolaketa izaera soilik orientagarria da.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamendu xehakatuaren dokumentura bideratzea proposatzen da –Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-, zeinek bere kasuan, 16 zbk.a ordezkatzuz eraikiko litzatekeen eraikinak, gaur egungoak eta eraitsitako ikuiluak okupatutako azalera edo antzekoa izatearen egokitasun eta aukera zehaztuko duen.

2 zbk.duna.- JOAKIN AGIRRE JAUREGI Jn.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2004/4863).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Iradoizunaren izenpetzaileak adierazten du, sistema orokorrak burutzeko beharrezko den zorua zesioan ematea jabeen betebeharra dela, baina ez honela hauek burutzearen kostua berengain hartzea, eta berau 10-12H.A.ko jabeek ez inputatzea eskatzen du.

Era berean prozeduran zati interesatu bezala hartua izan dedila eskatzen du, eta ebatzita-ko egintzak jakinaraztea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Aldaketa espedientean aurreikusitako ezaugarri eta baldintzekin bide elkargunerako errotonda burutzeak, 10-12H.A. izeneko gunerako aurreikusitako beharrei eta antolaketari erantzuten dio, beraz ez da gunearen kargura komunikazioen sistema orokorra burutzen, antolatutako gunerako sarrera eta hau eta hirigunearen arteko bide erlazioak burutu baizik (gunera sartzeko iparraldeko bidearen eta GI-2120-ren arteko elkargunea, Hiribarren kalearekin elkargunea, Lazkaoko herrigunearekin erlazioa etab.). Beraz, izenpetzaileak aipatzen dituen kargak 10-12H.A.rako aurreikusitako antolaketatik eratorritakoak dira, eta honen ondorioz bere kostua guneari inputagarria da.

Espedientearen inguruan ebatzitako egintzak jakinarazteari buruz esan behar da, osoko planeamenduaren aldaketa puntualaren aurrean aurkitzen garela, eta berau formulatzea Udalari dagokiola, martxoaren 6ko 5/1998 Legeak 3. artikuluan ezarritakoa betez, Lege honek lurzoruaren erregimen eta hiri antolaketari buruzko presazko neurriak ezartzen ditu. Supostu hauetan, ekimen publikoko planak, hirigintz planeamenduko Erregelamenduak ez du banakako jakinarazpenik ezartzen, jendaurreko erakustaldi publikoa baizik, dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunde gehienekoa duten egunkarietakoren batean argitaratuz.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

3 zbk.duna.- CARMELO ZABALEGUI VICTORIA, FRANCISCA LABORDE ABASOLO, IÑIGO ARAMBURU IZAGUIRRE eta NEREA LOYARTE GARMENDIA Jn./And.-ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/16).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak burutzen dituzte:

- Proiektu berriak proposatzen duen etxebizitzaren antolaketak berriro ere etxebizitzak eraitsi eta blokeko etxebizitzak eraikitzea aurreikusten du.
- Egungo etxebizitzak kontsolidatzeko antolaketako beste aukera batzuk badaude, unitateko helburuak errespetatuz.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Honen inguruan esan behar da, O.02 planoan isladatzen den proposatutako antolaketa, eta Iturgaitzaga kaleko 10 zbk.a eraistea proposatzen duena, izaera orientagarrikoa dela, nahiz eta antolaketako ondorengo irizpideetan oinarrituta dagoen:

- Bide-sarearen ikuspegitik gunearen barneko etorkizuneko bidea, inguruan dauden egungo beste elementuekin artikulatu eta erlazionatu beharra, Antzaldekoak edo 1. Sektorean aurreikusitakoak bezalakoak.
- Bide-sarearen artikulazio horrek Hiribarren, Elosegia edo Iturgaitzaga kaleengan soilik baskulatzea ekiditea, gaur egun iada, hiri sostengarritasun terminoetan bai bait dute, gutxienez, erdi-oinezkoentzako edo baterako-existentzia izaera.
- 3. Sektorean burututako oinezkoen pasealekuaren jarraipen logikoa, 1. Sektoretik eta 12H.A.tik zehar, zein burututako lanekin koherentzia, saihezbidearen ondoan eta berau eta egungo nahiz bizitoki garapen berrien artean kokatu beharko litzatekeen.

Horretarako saihezbidearekiko paralelo igarotzen den bidea proposatzen da, zeinek saihezbidean proposatutako sarbide berria Elosegia, Areso eta Iturgaitzaga kaleekin elkartzen duen, adierazitako eraikinaren eraispena behartuz.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamendu xehakatuaren dokumentura bideratzea proposatzen da -Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-, zeinek Iturgaitzaga kaleko 10 zbk.a, bide-sareari beste irtenbideren bat emanez kontsolidatzearen egokitasun eta aukera zehaztuko duen.

4 zbk.duna.- JOSE IGNACIO INSAUSTI JAUREGUI, JAVIER INSAUSTI JAUREGUI eta MAGDALENA DIAZ DE OTAZU Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/17).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte, antolaketa berri bat egin eta Irurena etxearen kontsolidazioa aurreikustea eskatuz, beraiek diotenez, etxea eraistearren arrazoi bakarra oinezkoen pasealekuari jarraipena ematea bait da, hori nahiko arrazoi ez dela ulertzen dutelarik. Gainera, saihezbidea zuzentzea ez dute beharrezko ikusten, etxebizitzaren eta saihezbidearen egungo trazaduraren artean espazio asko dagoela kontsideratzeagatik.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Aurkeztutako iradokizunaren inguruan esan behar da, sistema orokorren eta antolaketa orientagarriaren planoan, Irurena etxearen eraispena ez duela soilik oinezkoen pasabideari jarraipena emateko beharrak ondorioztatzen, honi beste modu batera irtenbidea ematea posible izango bai zen, ondorengo faktoreen baturak baizik:

- Bide-sarearen ikuspegitik gunearen barneko etorkizuneko bidea, inguruan dauden egungo beste elementuekin artikulatu eta erlazionatu beharra, Antzaldekoak edo 1. Sektorean aurreikusitakoak bezalakoak.

- Bide-sarearen artikulazio horrek Hiribarren, Elozegi edo Iturgaitzaga kaleengan soilik baskulatzea ekiditea, gaur egun iada, hiri sostengarritasun terminoetan bai bait dute, gutxienez, erdi-oinezkoentzako edo baterako-existentzia izaera.
- 3. Sektorean burututako oinezkoen pasealekuaren jarraipen logikoa, 1. Sektoretik eta 12H.A.tik zehar, zein burututako lanekin koherentzian, saihezbidearen ondoan eta berau eta egungo nahiz bizitoki garapen berrien artean kokatu beharko litzatekeen.

Horretarako saihezbidearekiko paralelo igarotzen den bidea sortzen da, zeinek punturik desfaboragarrienean (Maizpide eraikinaren hego-ekialdeko izkina), espaloi, bidegorri eta galtzadak osatutako zeharkako sekzioarekin, gutxieneko 10 metroko zabalera hartzen duen, oinean saihezbidearen trazadurari gainjarritz, honek berau lekualdatzea eta ondorioz Irurena etxea eraistea behartzen duelarik.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

5 zbk.duna.- CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY And.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/23).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileak jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten ditu, zera eskatuz:

- Bere etxebizitzaren inguruan dagoen lursaila errespetatu dedila.
- Bere etxebizitza eta Aldaketa proiektuak proposatutakoaren arteko distantzia handitu dedila.
- Bere etxebizitza eta Aldaketan aurreikusitakoaren arteko espaloiaren zabalera txikiagotzea.

2.- KONTSIDERAZIOA

Proposatutako iradokizunak gunearen antolaketa xehakatuaren barnean sartzen dira, eta alderdi horiek ez ditu Aldaketak garatzen, ez bait da bere helburua, eta gainera, proposatutako antolaketa soilik orientagarria da.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna kontsideratzea edo ez planeamendu xehakatuaren dokumentura bideratzea proposatzen da –Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-, zeinek etxebizitzaren inguruko lursailaren azalera errespetatu, etxebizitza berriekiko distantzia handitu eta espaloiaren zabalera erdira txikiagotzearen egokitasun eta aukera zehaztuko dituen.

6 zbk.duna.- LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/24).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileak ondorengo zehaztapenak egiten ditu jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan zera eskatuz:

- Egunen batean Hiribarren kaleko 16 zbk.an eraikiko balitz, emaitzazko eraikinak 234m²-ko oineko okupazioa izatea, 4 solairu izatea, estalki azpia etxebizitza bezala egokitzeko aukera izanez, eta era berean merkataritza lokalak etxebizitza bezala egokituz.
- Bere etxearen inguruan dagoen lursail azalera errespetatzea.
- Bere etxea eta Aldaketa proiektuan proposatutako artek distantzia handitzea.
- Bere etxebizitza eta Aldaketan aurreikusitako artek espaloien zabalera txikiagotzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako iradokizunak gunearen antolaketa xehakatuaren atalean sartzen dira, Aldaketak garatzen ez duen alderdia, ez bait da bere helburuetakoa, eta gainera, proposatutako antolaketaren izaera soilik orientagarria da.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamendu xehakatuaren dokumentura bideratzea proposatzen da –Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-, eta honek zehaztuko ditu, etxearen inguruan dagoen lursail azalera errespetatu, etxebizitza berriekiko distantzia handitu, adierazitako espaloien zabalera erdira txikiagotu, eta Hiribarren kaleko egungo 16 zbk.a ordezkatzeko lukeenaren baldintza geometriko eta aprobetxamenduaren egokitasun eta aukerak.

7 zbk.duna.- MARIA ASUNCION APAOLAZA ESTENSORO ETA JOSE IGNACIO LASA ESTENSORO JN./AND.EK AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/42).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo iritziak azaltzen dituzte:

- Beraien finkaren aurrealdean aparkalekuak eraikitze, beraien jabetzako lursail zati bat zehazki ematearekin ezadostasuna adierazten dute, aparkaleku horiek ez bait dituzte beharrezko ikusten.
- Proposatzen diren bateriako aparkalekuek Iturgaitzaga kaleko ibilgailuen trafikoari eragingo liekete, bidean, atasku, istripu txiki, kolpe etab. eraginez.
- Aparkaleku horiek linean egitea proposatzen dute.

- Eraikinaren inguruan eraiki gabeko espazio librea handitzeko beste aukera bat proposatzen dute (honek etxearen mantenimendu lanak burutzeko beharrezko diren elementuak ezartzeko aukera emateaz gain, etorkizunean ibilgailuentzat garajera-ko sarbidea posible egingo luke). Oinezkoen kalearen zabalera 13tik 10 metrora txikitzea proposatzen da. Honek era berean iparralderago kokatutako aparkaleku- en gunea hobetuko luke, errodadurako kalearen zabalera handituz.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako iradokizunak guneko antolaketa xehakatuaren atalean sartzen dira, eta Arauen Aldaketak ez ditu alderdi horiek garatzen, ez bait dira bere helburuetakoak. Gai- nera, proposatutako antolaketa orientagarria da soilik.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamenduko dokumentu xehakatura –Barne Erreformatarako Berariazko Egitamua- bideratzea proposatzen da, honek bateriako aparka- lekua lineara pasatzearen eta eraiki gabeko partzela librea mendebaldera handitzearen egokitasuna eta aukera zehaztuko ditu.

8 zbk.duna.- MAITE SOROA ETXEZARRETA ETA XABIER SOROA ETXEZARRETA Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/44).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen doku- mentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte, zera eskatuz:

- Hiribarren kaleko 12 zenbakirako 14 zbk.dun eraikinaren antzeko eraiki gabeko azalera librea errespetatzea.
- Hiribarren kaleko 10 eta 12 zbk.en eraikigarritasuna parean eraiki behar diren etxebizitzinari parekatzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako iradokizunak guneko antolaketa xehakatuaren atalean sartzen dira, eta al- derdi horiek ez ditu Aldaketak garatzen ez bait dira bere helburuetakoak. Gainera, propo- satutako antolaketak soilik izaera orientagarria du.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamendu xehakatuko dokumentura bidera- tzea proposatzen da –Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-. Honek zehaztu be- harko du eskatutakoen egokitasuna eta aukera, hau da, Hiribarren kaleko 12 zbk.rentzat 14 zbk.rentzat antzeko eraiki gabeko azalera errespetatzea, eta Hiribarren kaleko 10 eta 12 zbk.entzat eraiki behar diren etxebizitza berrien antzeko eraikigarritasuna aurrikustea- ren aukera.

9 zbk.duna.- MAITE SOROA ETXEZARRETA, XABIER SOROA ETXEZARRETA, CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY, LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO Jn./And.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/45).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzeaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte zera eskatuz:

- Beren etxebizitzaren inguruan kokatutako lursail azalera errespetatzea.
- Beren etxebizitzak eta Aldaketa proiektuak proposatutakoen arteko distantzia handitzea.
- Beren etxebizitzaren eta Aldaketan aurrikusitakoen arteko espaloiaaren zabalera erdira txikitzea.
- Hiribarren kaleko 10, 12, 14 eta 16 zbk.en ordezkatzeko kasuetarako baldintza geometriko berdinak kontsideratu ditezela.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako iradokizunak guneko antolaketa xehakatuaren atalean sartzen dira, eta alderdi horiek ez ditu Aldaketak garatzen ez bait dira bere helburuetakoak. Gainera, proposatutako antolaketak soilik izaera orientagarria du.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez planeamendu xehakatuaren dokumentura bideratzea proposatzen da –Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitamua-. Honek zehaztu behar du eskatutakoen egokitasuna eta aukera, hau da, etxebizitzaren inguruko lursail azalera errespetatzea, etxebizitza berriekiko distantzia handitzea, adierazitako espaloiaaren zabalera erdira txikitzea eta guneko osorako proposatutakoen antzeko forma geometrikoko baldintzak dituen ordezkapen ordenantza proposatzea.

10 zbk.duna.- MAITE SOROA ETXEZARRETA, XABIER SOROA ETXEZARRETA, CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY, JESUS MARIA AZKARGORTA GOENAGA, LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 2005/46).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo iritziak azaltzen dituzte:

- Proposatutako errotonda egiteak 10-12 Hirigintza Area etxebizitzaz kargatzea suposatzen du.

- Proiektuak trafiko guztia auzora eramaten du, honek berekin dakartzan kutsadura eta zaratarekin, eta kamioien pasabideari irekitzen zaion aukerarekin.
- Errotondaren inguruan beste aukera batzuk proposatzen dira, antolaketa planoe-tan jasotzen direnak:
 - o Errotonda egungo Lazkaomendiko bidegurutzean egitea.
 - o Lazkaomendirako sarbidea saihezbidearen azpian dagoen pasabidetik buru-tzea, saihezbidea, Lazkaomendirako sarbide den bidegurutzetik liberatuz.
 - o Senpereko bidegurutzean errotonda bat burutzea, proposatutakoa baino kome-nigarriagoa dena, eta bertatik Lazkaomendirako sarbidea egingo litzateke.
 - o Errotonda Senperen egin eta Lazkaomendi auzorako sarrera gaineko pasabide baten bidez burutzea, honek oinezkoen eta bizikleten sarrera ere posible egin-go lukeelarik.

Aurkeztutako proposamenak kontsideratu eta aztertzea iradokitzen da, errotondaren ko-kapena aldatzea, proposatzen den etxebizitza kopuru altuak burutzearen ondorioak kon-tutan hartzea, eta guztien bizitza kalitate baldintzak kontsideratzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Aldaketak proposatutako etxebizitzaren kopurua ez da bide elkargunearen diseinuaren on-dorio zuzena. Aurreko Arauen Aldaketan ere etxebizitza kopuru bera mantentzen zen, bi-de-sareari emandako irtenbidea beste bat bazen ere.

Saihezbidearen, Lazkaomendirako sarreraren eta herrigunerako sarreraren arteko elkar-gunearen emaitzak, O.02 "Antolaketa Orientagarria" planoan isladatzen denak, berau ma-rrazteko xehetasunez aztertu den arren, izaera indikatiboa du soilik, eta garapen planea-mendua izango da –Barne Erreformatarako Berariazko Egitamua- bidegurutzearen diseinu zuzena zehaztuko duena.

Aurreko proposamenarekin alderatuz, Aldaketa proiektuko diseinu orientagarriak trafikoa bizitegi-gune berritik guneko ertzetara eramaten du, ondorioz, kutsadura eta zaraten efektuak, edozein kasutan ere haseran aurreikusitakoak baino txikiagoak izango lirateke.

Aipatutako beste aukerei dagokienez esan behar da, Lazkaomendirako sarrera beste mo-du batera konponduko balitz ere –horretarako Foru Aldundiko Errepide Departamentuaren onespena beharko litzateke-, bizitoki guneko berriari sarbide zuzena emateko ezinbestekoa litzatekela errotonda bat eraikitzea. Hau, aldaketa proposamenaren justifikazioan baztertu ezinezko bezala kontsideratzen da eta gainera:

- Egungo bidegurutzean errotonda egiteak, beste zenbaiten artean, trafikoa herrigu-nera gerturatzea ekarriko luke, eta hori ekidin nahi da, proposatutako Aldaketaren memorian eta justifikazioan isladatua gelditzen den bezala.
- Lazkaoko AA.SS.en Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuan, Senpereko bidegu-rutzean errotonda eraikitzea aurreikusten da, bertan sortzen diren trafiko arazoei irtenbidea emateko.
- Lazkaomendi eta hilerrirako sarrerari San Inazio auzotik irtenbidea ematea erabat ez-proportzionala dela ulertzen da lortu nahi diren helburuekiko, proposatutako

errotondaren adar bakar bat kentzeko 700m.ko luzeradun bidea egitea suposatuko bait luke. Proposamen hau onartuta ere, errotonda beharrezkoa izango litzateke bizitoki gune berriko sarbideei irtenbidea emateko. Bestalde aukera honek hilerriko sarbidea urruntzea ekarriko luke.

- Gainera pasabidea egiteak Iturgaitzaga kaleko sestra altxatzea suposatuko luke, honek kale horretan kokatutako eraikinetan izango lituzkeen ondorioekin, eta ondorioz proposamen hori ez da egingarria kontsideratzen; gainera ekonomikoki garestiagoa izango litzateke.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 7 botu, eta beraz Udala osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzea erabakitzen du:

Lehena.- 2, 4 eta 10 zbk.dun iradokizunak desestimatzea.

Bigarrena.- 1, 3, 5, 6, 7, 8 eta 9 zbk.dun iradokizunak, talde erredaktatzaileak proposatutakoaren arabera erantzutea.

3.- 10-12 Hirigintz Areari -Iturgaitzaga gunea- dagokion Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honen Abantzea onartzea.

IV.- 10-12 H.A.REN B.E.B.E.REN ABANTZEAREN ONARPENA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita, 10-12 Hirigintz Areari -Iturgaitzaga gunea- dagokion Barne Erreformatarako Berariazko Egitasmoaren Abantzea dokumentua aurkeztu da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Barne Erreformatarako Berariazko Egitasmo honen helburua 10-12 Hirigintz Areako antolaketarako egindako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntualak aurrikusten duen xehatutako garapen planeamendua gauzatzea da.

2004ko azaroaren 17ko Alkatetzaren Ebazpen bidez Aldaketa Puntual honen lanak jendaurreko erakustaldian jartzea erabaki zen.

Dokumentua jendaurrean erakusten dela iragarritz iragarkiak 2004ko azaroaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2004ko azaroaren 24ko Berria eta Deia egunkarrietan argitaratu dira.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian 11 iradokizun aurkeztu dira eta iradokizun hauen aurrean, aldaketa puntual hau erredaktatu duen talde teknikoak honako txosten hau egin du:

1 zbk.duna. MARIA ASUNCION APAOLAZA ESTENSORO ETA JOSE IGNACIO LASA ESTENSORO Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 43)

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte:

- Beraien finkaren aurrealdean aparkalekuak eraikitzeke, beraien jabetzako lursail zati bat zesioan ematearekin ezadostasuna adierazten dute, aparkaleku horiek ez bait dituzte beharrezko ikusten.
- Proposatzen diren bateriako aparkalekuek Iturgaitzaga kaleko ibilgailuen trafikoari eragingo liekete, bidean, atasku, istripu txiki, kolpe etab. eraginez.
- Aparkaleku horiek linean egitea proposatzen dute.
- Eraikinaren inguruan eraiki gabeko espazio librea handitzeko beste aukera bat proposatzen dute (honek etxearen mantenimendu lanak burutzeko beharrezko diren elementuak ezartzeko aukera emateaz gain, etorkizunean ibilgailuentzat garajerako sarbidea posible egingo luke). Oinezkoen kalearen zabalera 13tik 10 metrora txikitzea proposatzen da. Honek era berean iparralderago kokatutako aparkalekuen gunea hobetuko luke, errodadurako kalearen zabalera handituz.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Planteatutako iradokizunek antolaketan aldaketa puntual batzuk proposatzen dituzte, hala ere, B.E.B.E.ren Aurrerapen dokumentuan proposatutako irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak aldatu gabe. Zentzu honetan ulertzen da bere kontsiderazioa, proposatutako aldaketan inplikazio zehatzak mugatzeko, azterketa zehatzago baten ondorio izan behar dela, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazterakoan.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna kontsideratzea edo ez B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentuaren idazte-prozesura bideratzea proposatzen da, non bateriako aparkalekua linean jarri eta eraiki gabeko partzela librea mende balderuntz zabaltzearen egokitasun eta aukera isladatuko diren.

2 zbk.duna. F. JAVIER ORIA ESTENSORO Jn.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 169).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunean adierazten da jabeen zerrendan Fco. Javier Oria Estensoro agertzen dela, eta Oria Estensoro Anai-arrebak agertu beharko litzatekeela, eta 48 1-119, 49 1-120, 52 3-13, 53 3-2 partzelen azalera eta mugaketa zuzendu beharko litzatekeela, zenbait planoren arabera.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Egindako iradokizunaren aurrean adierazi behar da adierazitakoak, baldin badagokie, Gunea garatzeko idatzi behar den Birpartzelazio Proiektuan kontsideratzeko egokiagoak direla.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizunaren kontsiderazioa, baldin badagokio, Birpartzelazio Proiektura bideratzea proposatzen da.

Une honetan, arratsaldeko 7ak eta 26 direnean, Javier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratzen da.

3 zbk.duna. MIREN ETXEZARRETA GARMENDIA And.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA, ETXEZARRETA-SOROA-GALARZA SENDIAREN IZENEAN (Sarrera Erregistro zbk.: 297).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunean Etxezarreta-Soróa-Galarza familiaren jabetzako partzelen neurketan dauden zenbait akatsei aipamena egiten zaie.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Egindako iradokizunaren aurrean esan behar da, dagokion kasuan, adierazitako alderdiak egokiago direla Gunea garatzeko idatzi beharreko Birpartzelazio Proiektuan kontsideratzeko, dokumentu horretan isladatzen bait dira jarritako partzelak, dagozkion eskriturak eta Sarrera Erregistro datuak aurkeztuz. Zentzu honetan erantsi behar da B.E.B.E.an barneratutako partzelarioak izaera informatiboa duela, ez loteslea.

3.- ONDORIOA

Aurkeztutako iradokizunaren onarpena, baldin badagokio, Birpartzelazio Proiektura igortzea proposatzen da.

4 zbk.duna. JOSE BARANDIARAN URRESTARAZU Jn.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 435).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Bere jabetzakoa den eta B.E.B.E.ko partzelarioan isladatzen ez den partzela bati, bertan 30 eta 32 zbk.dun partzeletan barneratzen da, aipamena egiten zaio.

2.-KONTSIDERAZIOAK

Egindako iradokizunaren aurrean esan behar da, aipatutako alderdiak, Gunea garatzeko idatzi behar den Birpartzelazio Proiektuan kontsideratzeko egokiagoak direla, dokumentu horretan isladatzen bait dira jarritako partzelak, dagozkien eskriturak eta Sarrera Erregistro datuak aurkeztuz. Zentzu honetan, B.E.B.E.an barneratutako partzelarioak izaera informatiboa du, ez loteslea.

3.- ONDORIOA

Aurkeztutako iradokizunaren kontsiderazioa, dagokion kasuan, Birpartzelazio Proiektura igortzea proposatzen da.

5 zbk.duna. AURORA SOMAZA PULIDO, M^a PILAR SANCHEZ HERNANDEZ eta GREGORIO GOENA AUZMENDI Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 472).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunean proposamenaren alternatiba ezberdinak aztertzea eskatzen da, Hiribarren kaleko 6 zbk.ko 1., 2. eta 3. solairuetako terrazei ez eragiteko.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Honen inguruan adierazi behar da, azkenik kontsideratzen den antolaketa alde batera utzita ere, aipatzen diren terrazak hurrenez hurren egindako eranskinen ondorio direla, eta beren baldintza eta ezaugarri estetikoak direla eta, zaila dela hauek mantendu daitezkeela pentsatzea.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

6 zbk.duna. LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGINO And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 476).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileak adierazten dute, bere egunean Hiribarren kaleko 16 zbk.an kokatutako eraikinak iparraldera erantsitako eraikina zuela, bere aurrean espaloia eraikitzeke eraitsi zena, eta honekin eraikinak okupatutako azalera 2 area eta 34 zentiareako zela eskrituren arabera. Ondorioz, egunen baten 16 zbk.an eraikinen bat eraikiko balitz, aipatutakoaren pareko azalera izatea proposatzen da.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Aurkeztutako iradokizunak antolaketa aldaketa puntuala proposatzen du, halaere, B.E.B.E-ren Aurrerapen dokumentuan proposatutako irizpide, helburu eta irtenbide oro-

korrak aldatu gabe. Zentzu honetan ulertzen da bere kontsiderazioa, proposatutako aldatetaren inplikazio konketuak zehazteko, azterketa zehatzago baten ondorio izan behar dela, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazterakoan.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazte prozesura igortzea proposatzen da, bertan isladatu beharko delarik, egunen batean 16 zkb.an eraikinen bat egingo balitz, honek iradokizunen idatzian adierazitako azaleraren baliokidea izatearen egokitasun eta aukera.

7 zbk.duna. MAITE SOROA ETXEZARRETA eta XABIER SOROA ETXEZARRETA Jn./And.en IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 478).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek jendaurrean erakutsitako dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte, zera eskatuz:

- Hiribarren kaleko 12 zenbakiarentzat, Hiribarren 14ko eraiki gabeko antzeko azalera errespetatu dedila.
- Hiribarren kaleko 10 eta 12 zenbakien eraikigarritasuna, parean eraiki behar diren etxebizitzinari parekatzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Lehenengo gaiari dagokionez adierazi behar da, bere kontsiderazioa, proposatutako aldateten inplikazio konketuak zehazteko, azterketa zehatzago baten ondorio izan behar dela, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazterakoan.

Bigarren gaiari dagokionez adierazi behar da, 10-12H.A.ko B.E.B.E.ren Aurrerapena idazterakoan jarraitutako irizpide eta helburuetako bat, Hiribarren kaleko 10, 12, 14 eta 16 zbk.ei dagozkien eraikinak kontsolidatzea izan dela (10 eta 16 zkb.ak egungoen antzeko beste eraikin batzuekin ordezkatzearen aukerarekin, egungo kokalekuan, Hiribarren kaleruntz gehiegi aurreratzen bait dira). Aipatu eraikinek udalerriko aldiri edo errebal moduko osatzen dute, hiriguneko memori historikoaren zati bat gordetzearen helburuarekin.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako lehenengo iradokizuna onartzea edo ez B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentuaren idazte prozesura igortzea proposatzen da, eta aurkeztutako bigarren iradokizuna berriz ezestea.

8 zbk.duna. CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY And.k AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Erreg. zbk.: 479).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileak jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten ditu, zera eskatuz:

- Bere etxearen inguruko lursail azalera errespetatzea.
- Bere etxebizitzaren eta 10-12H.A.ko B.E.B.E.ren Aurrerapen proiektuak proposatutakoen arteko distantzia handitzea.
- Bere etxebizitzaren eta 10-12H.A.ko B.E.B.E.ren Aurrerapen proiektuan proposatutakoen arteko espaloia zabalera txikiagotzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Proposatutako gaien inguruan adierazi behar da, hauen kontsiderazioa, proposatutako aldaketen inplikazio konkrituak zehazteko, azterketa zehatzago baten ondorio izan behar dela, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazterakoan.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna onartzea edo ez, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazte prozesura igortzea proposatzen da.

9 zbk.duna. MAITE SOROA ETXEZARRETA, XABIER SOROA ETXEZARRETA, CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY, JESUS MARIA AZKARGORTA GOENAGA, LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGINO Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 480).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzaileek, jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte:

- Proposatutako errotonda egiteak 10-12 Hirigintz Area etxebizitzaz kargatzea suposatzen du.
- Proiektuak trafiko guztia auzora eramaten du, honek berekin dakartzan kutsadura eta zaratarekin, eta kamioien pasabideari irekitzen zaion aukerarekin.
- Errotondaren inguruan beste aukera batzuk proposatzen dira, antolaketa planoe-tan jasotzen direnak:
 - o Errotonda egungo Lazkaomendiko bidegurutzean egitea.
 - o Lazkaomendirako sarbidea saihesbidearen azpian dagoen pasabidetik burutzea, saihesbidea, Lazkaomendirako sarbide den bidegurutzetik liberatuz.
 - o Senpereko bidegurutzean errotonda bat burutzea, proposatutakoa baino kome-nigarriagoa dena, eta bertatik Lazkaomendirako sarbidea egingo litzateke.
 - o Errotonda Senperen egin eta Lazkaomendi auzorako sarrera gaineko pasabide baten bidez burutzea, honek oinezkoen eta bizikleten sarrera ere posible egingo lukeelarik.

Aurkeztutako proposamenak kontsideratu eta aztertzea iradokitzen da, errotondaren kopapena aldatzea, proposatzen den etxebizitza kopuru altuak burutzearen ondorioak kontutan hartzea, eta guztien bizitza kalitate baldintzak kontsideratzea.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Aldaketak proposatutako etxebizitzaren kopurua ez da bide elkargunearen diseinuaren ondorio zuzena. Aurreko Arauen Aldaketan ere etxebizitza kopuru bera mantentzen zen, bide-sareari emandako irtenbidea beste bat bazen ere.

10-12H.A.ko B.E.B.E.ren Aurrerapenean proposatutako diseinuak, trafikoa bizitegi-gune berriak guneko ertzetara eramaten du, beraz, kutsadura eta zaraten efektuak, edozein kasutan ere haseran aurreikusitakoak baino txikiagoak izango lirateke.

Aipatutako beste aukerei dagokienez esan behar da, Lazkaomendirako sarrera beste modu batera konponduko balitz ere –horretarako Foru Aldundiko Errepide Departamentuaren onespina beharko litzateke-, bizitoki gune berriari sarbide zuzena emateko ezinbestekoa litzatekela errotonda bat eraikitzea. Hau, aldaketa proposamenaren justifikazioan baztertu ezinezko bezala kontsideratzen da eta gainera:

- Egungo bidegurutzean errotonda egiteak, beste zenbaiten artean, trafikoa herrigunera gerturatzea ekarriko luke, eta hori ekidin nahi da, proposatutako Aldaketaren memorian eta justifikazioan isladatua gelditzen den bezala.
- Lazkaoko AA.SS.en Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuan, Senpereko bidegurutzean errotonda eraikitzea aurreikusten da, bertan sortzen diren trafiko arazoei irtenbidea emateko.
- Lazkaomendi eta hilerriko sarrerari San Inazio auzotik irtenbidea ematea erabat ez-proporzionala dela ulertzen da lortu nahi diren helburuekiko, proposatutako errotondaren adar bakar bat kentzeko 700m.ko luzeradun bidea egitea suposatuko bait luke. Proposamen hau onartuta ere, errotonda beharrezkoa izango litzateke bizitoki gune berriko sarbideei irtenbidea emateko. Bestalde aukera honek hilerriko sarbidea urruntzea ekarriko luke.
- Gaietako pasabidea egiteak Iturgaitzaga kaleko sestra altxatzea suposatuko luke, honek kale horretan kokatutako eraikinetan izango lituzkeen ondorioekin, eta ondorioz proposamen hori ez da egingarria kontsideratzen; gainera ekonomikoki gaustiagoa izango litzateke.

3.- ONDORIOAK

Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

10 zbk.duna. MAITE SOROA ETXEZARRETA, XABIER SOROA ETXEZARRETA, CARMEN RUIZ DE EGUINO GARAY, LAIDA AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO eta LIERNI AZKARGORTA RUIZ DE EGUINO Jn./And.ek AURKEZTUTAKO IRADOKIZUNA (Sarrera Erregistro zbk.: 481).

1.- IRADOKIZUNAREN EDUKIA

Aurkeztutako iradokizunaren izenpetzeailleek jendaurrean erakutsitako Aurrerapen dokumentuaren inguruan ondorengo zehaztapenak egiten dituzte zera eskatuz:

- Beren etxebizitzaren inguruan kokatutako lursail azalera errespetatzea.
- Beren etxebizitzak eta Aldaketa proiektuak proposatutakoaren arteko distantzia handitzea.
- Beren etxebizitzaren eta Aldaketan aurrikusitakoaren arteko espaloia zabaleraren erdira txikitzea.
- Hiribarren kaleko 10, 12, 14 eta 16 zbk.en ordezkatzeko kasuetarako baldintza geometriko berdinak kontsideratu ditezela.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Planteatutako lehenengo 3 gaiak dagokienean adierazi behar da, hauen kontsiderazioa, proposatutako aldaketaren inplikazio konkrituak zehazteko, azterketa zehatzago baten ondorio izan behar dela, B.E.B.E.ren haserako onarpenerako behin-betiko dokumentua idazterakoan.

4. gaiari dagokionean adierazi behar da 10-12H.A.ko B.E.B.E.ren Aurrerapena idazterakoan jarraitu den irizpide eta helburuetako bat, Hiribarren kaleko 10, 12, 14 eta 16 zenbakiei dagozkien eraikinak kontsolidatzea izan dela (10 eta 16 zenbakiak egungoen antza duten beste batzuekin ordezkatzeko aukerarekin, egungoak Hiribarren kaleruntz gehiegi ateratzen bait dira), etxe horiek udalerriaren aldiri modukoa osatzen bait dute, bere memori historikoa gorde nahian. Beraz, ordezkapen kasuan B.E.B.E. an aurreikusitako eraikin berrien antzeko baldintza geometrikoak mantentzea, proposatutako irizpide orokorren aurka-koa litzateke.

3.- ONDORIOAK

Planteatutako lehenengo 3 gaiak kontsideratzea edo ez haserako onarpenerako B.E.B.E. ren behin-betiko dokumentua idazte prozesura igortzea proposatzen da, eta laugarrena ezestea.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du bera gai honetan abstenitu egingo dela.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EA), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), honako erabaki hauek hartzea erbakitzen du:

1.- 5, 7.2, 9 eta 10.4 zbk.dun iradokizunak desestimatzea.

2.- 1, 2, 3, 4, 6, 7.1, 8 eta 10.1, 10.2 eta 10.3 zbk.dun iradokizunak, talde erredaktatzailerak proposatutakoaren arabera erantzutea.

3.- 10-12 Hirigintz Areatari -Iturgaitzaga gunea- dagokion Arau Subsidiarioetako Barne Erreformako Berariazko Egitasmoaren Abantzea onartzea.

4.- Talde erredaktatzaileari, B.E.B.E. honen proposamen dokumentua idatz dezan eskatzea.

V.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA; 10-12 H.A., HASIERAKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udala, 10-12 Hirigintz Areari -Iturgaitzaga- dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala izapidatzen ari da. Dokumentua Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzitakoa da.

Aldaketa puntual honen helburuak ondorengo hauek dira:

Trafikoko bidegurutzea ifarralderago eramatea, bidegurutze hau ari gareneko egoitza gune berri honen erdialdetik ertz batera eramanez. Aldi berean honekin egoitza gunea eta aldamenear dagoen Ibabe industri poligonoa hobeto bereizita geratzea lortuko da.

Udalak, AA.SS. etako aldaketa honen formulaketa bere eginez, dokumentuaren abantzea jendaurrean jarri zuen hogeita hamar eguneko epean eta denboraldi horretan 10 iradokizun jaso ziren.

Udal Osoko Bilkurak, Osoko Bilkura honetan bertan, aurkeztutako iradokizunei buruz ebatzi eta abantzea onartzea erabaki du.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin (8 botu), eta beraz Udala osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- 10-12 Hiri Areari -Iturgaitzaga- dagokion Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honi haserako onarpena ematea.

2.- Haserako onarpen honi buruzko iragarkia hilabete bateko denboraldian jendaurrean jartzea, iragarkia Udaletxeko iragarki ohelean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

VI.- 10-12 H.A. REN B.E.B.E. REN HASIERAKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udala 10-12 Hirigintz Areako Barne Erreformako Berariazko Egitasmoa izapidatzen ari da, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek, eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak osatzen duten talde erredaktatzailearen bitartez. Arau Subsidiarioetako gune honek Iturgaitzaga kalea, Elosegi 48-58, Hiribarren 2-16 eta Irurena etxea hartzen ditu bere eremuan.

Dokumentua aztertu ondoren eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 10-12 H.A. ko Barne Erreformarako Berariazko Egitamuaaren Proposamen dokumentua haserako izaeraz onartzea.

- 2.- 15 eguneko denboraldian jendaurreko erakustaldi tramitea irekitzea, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz, edozeinek aztertu eta alegazioak aurkezte ondorioetarako

VII.- ARERIA ARETOAREN PROIEKTU ONARPENA ETA LEHIAKETARA ATERATZEA.-

Jose Manuel Elizegi arkitektoak Areria eraikin sozio-kulturala eraikitzeko proiektua idatzi du. Proiektu honen aurrekontuak hiru zati ditu:

1.- Obra zibilari dagokion aurrekontua eta honen zenbatekoa BI MILIOI ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (2.842.872,77) takoa da, B.E.Z. barne.

2.- Ekipamendu eszenikoari dagokion aurrekontua eta honen zenbatekoa HIRUEHUN ETA BOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ET LAUROGEITABI ZENTIMO (305.552,82 €)takoa da, B.E.Z. barne.

3.- Altzariaei dagokion aurrekontua eta honen zenbatekoa EHUN ETA BOST MILA BERREHUN ETA BERROGEITA LAU EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (105.244,99 €)takoa da, B.E.Z. barne.

Alkateak, 2006ko otsailaren 1eko dataz emandako alkatetzaren ebazpen bidez proiektua jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zuen eta jendaurrean eduki den hamabost egunetako denboraldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Bestalde proiektu honen lehen atalari, hau da, obra zibilari dagokion lanak burutzeko kontratazio espedientea prestatu da. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientean aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, erizpideak prezioa (%50), Obrara lotzen den langilegoa eta azpikontratatuak diren enpresak (%20), epea eta obra planina (%10), antzeko lanetan esperientzia (%5) eta proiektuari buruz duen ezagutza eta proiektuari planteatutako hobekuntzak adieraziz memoria (%15) izango dira. Lanen burutzea 2006 eta 2007 urteetako aurrekontuetatik finantzatu da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza proiektua, Jose Manuel Elizegi arkitektoak idatzitakoa, onartzea.

2.- Lanak burutzeko kontratazio espedientea onartzea.

VIII.- 18 H.A.REN 1 B.U.AREN %10AREN ESLEIPENA.-

Lazkaoko Udalak Udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 18 Hirigintz Areako 1 Burutze Unitateko lursail eraikigarrian duen aprobetxamenduaren %10eko partaidetza lehiaketa bidez besterenganatzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimetaletan dagoen ikusirik.

Horretarako irekitako baliozko epearen barruan honako proposamenak aurkeztu dira kontutan izanda:

1. Ondarra Cleanning, S.L.

Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipena baliozko proposamen bakarraren egile den Ondarra Cleanning, S.L.ren alde egitea proposatzen duela kontutan izanda.

APKLren 92 artik. ikusi eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere pardaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- Lizitazio egintza baliozkoa aitortzea.

Bigarrena.- Lazkaoko Udalak Udalerriko Arau Subsidiarioetako 18 Hirigintz Areako 1 Burutze Unitateko lursail eraikigarrian duen aprobetxamenduaren %10eko partaidetza besterentzeko lehiaketa, Ondarra Cleanning, S.L.ri esleitzea, BERROGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA LAU EURO eta HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (47.644,70 €)tan.

Hirugarrena.- Esleitzailari, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen duenetik 20 egunetako epean, behin betiko bermea jar dezan eskatzea.

Laugarrena.- Esleipen honetatik eratorri daitezkeen edozein dokumentu izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

IX.- BIZTANLEEN ERROLDA 2006-01-01ERA ZUZENKETA.-

Udal Zerbitzu Teknikoek 2006ko urtarrilaren 1 datara Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa prestatu dutelarik, Osoko Bilkurara aurkeztzen dira zuzenketa honen zenbakizko emaitzak, bere onarpenerako.

Zuzenketa honen arabera, Lazkaok bost mila ehun eta hogeita hamabi (5.132) biztanle zituen 2006ko urtarrilaren 1ean. Zenbaki hau ondorengo eragiketen emaitza dugu:

KONTZEPTUAK	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Biztanlegoa 2005-01-01 datara	5.114	2.627	2.487
Altak 05-01-01etik 2006-01-01era	207	109	98
Bajak 05-01-01etik 2006-01-01era	188	101	87
Biztanlegoa 2006-01-01era	5.132	2.635	2.497

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, 2006ko urtarrilaren 1 datara egindako Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa hau onartu egiten du.

Baita ere konstarazten da Instituto Nacional de Estadisticak bidalitako zenbakien arabera 2006ko urtarrilaren 1 datara Lazkaok bost mila ehun eta hamasei (5.116) biztanle zituela. Beraz hamasei biztanleren aldea dago bi erakundeen arteko zenbaketetan.

X.- GOIEKI-KO KONTUEN ONARPENA.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2005Eko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Osoko Bilkurak, aztertu ondoren, aho batez, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

XI.- GOIEKI-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDE ORDEZKAPENA.-

Alkateak esaten du GOIEKIn, Beasaingo Udalari dagokion ordezkartzan, aldaketa bat egon dela eta GOIEKIn esan diotenez, aldaketa hau GOIEKI osatzen duten udal guztietako Osoko Bilkuretan onartu behar da.

Beasaingo GOIEKiko ordezkartzan eman den aldaketa honako hau da: Iñaki Saldañaren ordezkari Julene Hidalgo izango da hemendik aurrera ordezkaria.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin onartu egiten du aldaketa hau.

XII.- GOIEKI-KO KAPITAL HANDITZEA.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen da GOIEKI, S.A.k goierriko garapen agentziak planteatu duen kapital handitzea.

Alkateak esaten du kapital handitze honek ez duela udalek egin beharreko ekarpen berririk suposatzen baizik eta kontabilitateko erregularizazio baten bidez egingo dela. Gehitzen du udalek bazkide modura GOIEKIn egiten dituzten diru-ekarpenak GOIEKik dituen defizita estaltzea dutela helburu eta balantzeko pasiboko "bestelako zorrak" kontura eramaten direla. Defizitak ordeak ekarpenak baino txikiagoak izan direnez, kontu horretan dirua pilatzen joan da eta auditoreen aholkua dirutza kapitalera eramatea da kapital handitze baten bidez.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, GOIEKiko kapital handitze hau onartzea erabakitzen du.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.